

ANDRES URRUTIA

Deskribapena: Kike eta Andres Urrutia mahai baten inguruan elkarrizketan ageri dira.

Kike: “Atzera begiratuta orduan zergatik sortu zen batua eta ze irizpideren arabera?”

Andres: “Ba nik uste batua sortu zela testuinguru jakin batean; akademiak, Euskaltzaindiak, berrogeita hamar urte bete zituen orduko hartan, mila bederatzehun eta hirurogeita zortzigarren urtean eta Gabriel Aresti zenak planteatu zuen bueno, bazela garaia, euskera batuari buruz zerbait egiteko. Zertarako? Kode bat, kode erkide bat izateko eta batez be nik esango nuke kode idatzi bat izateko nahi bagenu euskara moderno bat, nahi bagenu euskara gizarte, nik esango nuke zibil baterako behar genuen batasun hori, behar genuen leku amankomun bat izan.”

Kike: “Eta zer funtzio betetzen du batuak eta zer funtzio dute euskalkiek?”

Andres: “Euskalkiak dira, bueno, hasieran nik esango nuke euskera batuaren jatorria, oinarria ezinbestekoa eta gainera bizirik daude eta bizirik jarraitu egin beharko lukete esamolde nolabait propioak ditugulako eta gainera erabiltzen dugulako egunero, egunero halako euskalki bat. Eta euskalki horretatik aparte ere euskera batua ari da iada sartzen eta barneratzen bestelakoak, bestelako irtenbide linguistikoak, euskaldun berriek sortzen dutenak, komunikazio premiak gaur egunean plazaratzen dituztenak, horiek ere hartzekoak dira eta hori da seinalerik onena ikusteko euskera bera bizirik dagoela eta euskera horren barruan daukagu euskera batua bera, formalizatze mailan eta ditugula euskalki horiek eta biak direla uztartzeko modukoak.”